



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

Kultura, kirol eta laguntza jardueretarako 2012ko ekitaldirako diru-laguntzak

Kirol erakundeentzako eta kirol eta/edo kultur jarduerak sustatzen dituzten elkarteentzako 2012ko ekitaldirako diru-laguntzak

Alkatetzaren 170/2012 Dekretuaren bidez, **kirol erakundeei eta kirol eta/edo kultur jarduerak sustatzen dituzten elkarteei 2012ko ekitaldian diru-laguntzak** emateko deialdia onartzen da, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri berezietan araututakoarekin bat etorritz, jarraian zehazten den eran.

LEHENENGOA.- 2012ko ekitaldirako haurtzaindegiko beken deialdi publikoa onartzea, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri berezietan xedatutakoaren arabera. Oinarriok 242. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2010eko abenduaren 20an.

BIGARRENA.- Diru-laguntzen aurrekontu-muga **HAMABOST MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI MILA EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMOKOA** da (15.857,55 €), eta 45 48100 eta 45 48001 aurrekontu-partiden kargura ordainduko da.

HIRUGARRENA.- 1. 2012. urtean udalerrian kultura eta kirol jarduerak egin eta garatzeko emango dira diru-laguntzak, betiere laugarren idatz-zatiaren arabera onuraduntzat jotzen diren erakundeek egiten badituzte.

Ondorio horietarako, proiektuak kultura eta kirol interesekotzat joko dira udal eskaintzari ekarpen esanguratsua egiten badiote, balio artistiko eta sortzailea dutelako eta kultura eta kirol jarduera sustatzen dutelako.

2.- Erakunde edo elkarte bakoitzak gehienez ere proiektu bat aurkeztu ahalko du, askotariko jarduerak bilduta. Arlo hauen inguruko jarduerak lagunduko dira diruz:

- Arte eszeniko (ikuskizunen erakustaldi edo eszenaraztea) amateurren (ez profesionalen) adierazpenak.
 - Euskara sustatzeko programak.
 - Musika.
 - Folklorea.
 - Adindunen zein adingabeen aisialdi eta astialdiarekin zerikusia duten proiektuak.
 - Udalerriko elkarten artean ezarritako eremuekin zerikusia duten lankidetzaproiektuak.
 - Aukera berdintasuna eta genero indarkeriaren aurkako borroka sustatzea xede duten proiektuak (azaroaren 25a / martxoaren 8a).
 - Bidaiak eta txangoak.
 - Adinekoen sustapenerako garatu beharreko jarduerak (Adinekoen Eguna).
 - Adingabeentzako kirol ekitaldiak antolatzea (federazioa...).
- 3.- Diruz laguntzeko zio izan diren proiektuak 2012ko ekitaldian garatu beharko dira.
- 4.- Aplikazio-eremutik kanpo geldituko dira honako hauek:
- 6 pertsona baino gutxiagori zuzentzen zaizkionak.
 - Jaietako egitarauak.
 - 600 € baino gutxiagoko aurrekontua duten jarduerak.
 - Udalerritik kanpo egiten diren jarduerak eta ekitaldiak (txangoak izan ezik):

5.- Gastu diruz lagungarriak izango dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin garbiki bat datozen eta behar-beharrezkoak diren gastuak, betiere behar bezala justifikatu badira. Inola ere ez dira diruz lagunduko erakunde eskatzaileen egitura kudeatzeko diren gastuak (langileria gastuak, komunikazioa eta abar).



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

6.- Deialdi honen helburua da erakunde eskatzaileen ekintza laguntzea eta osatzea, inoiz ez jarduera egiteagatik sortu diren gastu guztiak finantzatzea.

LAUGARRENA.- ONURADUNAK

1.- Ordenantza honetan arauturiko diru-laguntzen onuradun honako hauek izan ahalko dira:

- Erretiratuen elkarteak.
- Emakumeen elkarteak.
- Kultur elkarteak.
- Kirol elkarteak edo klubak.
- Auzo elkarteak.

Betiere irabazi asmorik gabeko elkarteak edo klubak badira.

Betekizun hauek bete beharko dituzte:

- Egoitza soziala udalerrian izatea.
- Dagokien erregistroan izena emanda egotea.
- Irabazi asmorik gabe eratuak izatea.

Kirol elkarteak edo erakundeak badira, aurrekoez gain betekizun hauek ere bete beharko dituzte:

- Bizkaiko edo Euskal Herriko kirol federazio bati atxikirik egotea. Federazio horren modalitateak, betiere, haien sustapen edo praktika izan behar du xede.

BOSGARRENA.- DIRU-LAGUNTZA EMATEKO ARAUBIDEA

Diru-laguntzak norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, eta hark aurkeztu diren eskaerak konparatuko ditu, horien artean lehentasunak ezartzeko helburuarekin. Horretarako, 7. artikuluan ezarritako balorazio irizpideak hartuko ditu kontuan. Hala, udal diru-laguntza puntu gehien lortu dutenei emango diie, betiere dagokion aurrekontu-partidan ezarritako mugarekin —ordenantza honen bigarren artikuluan zehaztu da—.

SEIGARRENA: ESKAERAK ETA EPEAK

1.- Diru-laguntzaren eskaerak edo proiektuak udaletxean aurkeztu beharko dira, eta, horiekin batera, hurrengo idatz-zatietan zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dira, erakunde edo elkarteko presidentek edo idazkariak sinaturik.

2.- Eskaerak aurkezteko epea egutegiko 30 egunekoa izango da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.- Izaera orokorreko agiri hauek erantsi beharko dira:

- Eskaeraren sinatzailearen NANaren fotokopia.
- Jarduteko ahal edo ordezkartzaren egiaztagiria.
- Erakundearen IFKren fotokopia.
- Dagokion erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria.
- Dagokien federazioko kide egin izanaren ziurtagiria (kirol erakundeen kasuan).
- Erakundearen Estatutuen kopia (udal artxiboetan lehendik jasota ez badaude edo aldatu badira).
- Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotearen egiaztagiria.

4.- Dokumentu espezifikoko hauek erantsi beharko dira:

- Proiektuaren deskribapena, proiektua azaltzen duen memoria barne duena. Memorian, proiektua zer jardueraz osatzen den zehaztuko da, eta honako hau adieraziko da:
 - Jardueran eragiteko beharra.
 - Jardueraren hartzaileak, adina, generoa, jatorria eta jarduera egingo den lekua.
- Lortu nahi diren helburuak.
- Sarrera-gastuen aurrekontua.
- Jarduera egiteko lekuak eta egunak.
- Proiektuaren alderdi berritzaileei buruzko txostena.



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

- Euskarak proiektuan izango duen presentziari eta erabilerari buruzko txostena.
- 5.- Eskaerak erabat formalizatzen ez badira edo agiriren bat falta bada, interesdunei eskatuko zaie egutegiko 10 eguneko epean zuzendu dezatela hutsunea edo aurkez ditzatela beharrezko dokumentuak, eta adieraziko zaie hala egiten ez badute eskaeran atzera egin dutela joko dela.

ZAZPIGARRENA: BALORAZIO IRIZPIDEAK

Aurkeztutako proiektuak balioztatzeko, jarraian zehazten diren irizpideak hartuko dira kontuan, eta proiektuen haztapena, gehienez ere 105 puntukoa, jarraian zehazten den moduan egingo da:

- 1.- Berrikuntzaren eta/edo diziplinartekotasunaren aldeko apustu irmoa dakarten kirol eta kultur proiektuak eta lankidetzakoak direnak: 10 puntu.
 - 2.- Jardueran eragiteko beharra, proiektuari dagokion kultur eta kirol diziplina kontuan hartuta: gehienez 15 puntu. Proiektu guztiei 5 puntu emango zaizkie gutxienez, kultur eta kirol diziplina guztiak, bat ere baztertu gabe, aintzat hartu beharrekoak direla aitortzen baita. Kultura edo kirol modalitatearen arabera, 6 eta 15 puntu bitartean emango dira.
 - 3.- Proiektuak udal kultura eta kirol eskaintzari egiten dion ekarpena: 20 puntu.
 - 4.- Dagokion eskaintza edo proiektuaren alderdi pertsonala: hartzaileak kontuan hartuz balioztatuko da proiektua: gehienez 10 puntu.
- Proiektu guztiei 5 puntu emango zaizkie gutxienez, eta 16 urtetik beherakoentzat, 50 urtetik gorako gizon-emakumeentzat eta/edo erretiratuentzat diren jardueri 6 eta 10 puntu bitartean emango zaizkie.
 - 5.- Proiektuaren finantzaketa-maila: ratioa lortzeko, proiektuaren diru-sarrera guztiak, bai bazkideen ekarpenen bidez sortzen direnak, bai laguntza bidezkoak eta bai jarduerak berak sor litzakeenak, jarduerak sortzen dituen gastuez zatituko dira: gehienez 10 puntu.
 - 6.- Erakundearen ibilbidea: 10 puntu, irizpide hauen arabera banatuak:
 - Gutxienez jarduera bat egina izatea deialdia egin aurreko urtean (5 puntu).
 - Gutxienez 20 bazkide izatea (5 puntu).
 - 7.- EUSKARAREN erabilera: 15 puntu. Euskararen erabilerak adierazgarria izan behar du. Hala ez bada, ez da punturik emango.
 - 8.- Berdintasunezko jarduerak sustatzea: 5 puntu.
 - 9.- Beste udal elkarteekin lankidetzan egindako proiektua izatea: 10 puntu.

Ez dira diruz lagunduko gutxienez 55 puntu lortu ez dituzten proiektuak.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa aurrekontuaren % 75 izango da, baina inola ere ez da izango 1.900 euro edo gehiagokoa.

Proiektu guztiek gutxienerako finantzaketa propio bat izan beharko dute, kostuaren guztizko zenbatekoaren % 25ekoa.

ZORTZIGARRENA.- AHOLKULARITZA

Udaleko Kultura Batzorde Teknikoak beharrezko aholkularitza emango du ordenantza honen inguruan sor litezkeen zalantzak argitzeko.

BEDERATZIGARRENA.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

Eskaeren analisisa eta ebaluazioa Udal Informazio Batzordeak egingo du.

HAMARGARRENA.- EBAZPENA

Ebazteko eta jakinarazteko epea 10 egunekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera.

HAMAIKAGARRENA.- ORDAINKETA

Ordainketa ebazpenaren berri eman ondoren egingo da, hain zuzen ere jakinarazpena jaso denetik egutegiko 10 egun igaro ondoren, betiere esanbidez uko egin ez bazaio.

HAMABIGARRENA.- ITZULKETA, ERAKUNDE ONURADUNAREN EKIMENEZ



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

Udalak eskatu gabe onuradunak egindakoa da.

Ordainketa-gutun bidez egingo da.

HAMAHIRUGARRENA.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Ordenantza honetan araututako diru-laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Jarduera egitea.
- Diru-laguntza emateko oinarri diren baldintzak betetzen direla justifikatzea, udaletxean agiri hauek aurkeztuz:
 - a) Jardueraren garapena azaltzen duen memoria, betetze-maila, laguntza, erabilitako giza baliabideak eta baliabide materialak, biztanle hartzaileak.
 - b) Gastuen eta diru-sarreraren behin betiko zerrenda aurkeztea, gastuen fakturak ekarriz.
 - c) Jarduera bera garatzeko beste diru-laguntza batzuk jaso badira, Udalarari horren berri ematea.
 - d) Argitalpen, publizitate edo jakinarazpen guztiak gutxienez euskaraz egin beharko dira, eta Udalaren logotipoa eraman beharko dute.

HAMALAU GARRENA.- Itzultzea:

Diru-laguntza eta berandutzako interesak kasu hauetan itzuliko dira:

- Justifikatzeko betebeharrak bete ez bada.
- Diru-laguntza bere xederako ez erabiltzea.
- Diru-laguntza ematea justifikatu zuten baldintzak bete ez badira.
- Ordenantzan aurreikusitako gainerako betekizunak bete ez badira.
- Ezarritako kontrol jarduerari uko edo traba egin bazaie.

HAMABOS GARRENA.- Argitara bedi Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean eta webgunean.

HAMASEI GARRENA.- Udal Osoko Bilkurari ebazpen honen berri ematea hurrengo ohiko bilkuran.

Jose Madariaga Marin alkate jaunak hala agindu eta sinatu du, Barrikan, bi mila eta hamabiko abenduaren hogeita zortzian.

Barrikan, 2013ko otsailaren 4an

ALKATEA,

José Madariaga Marín



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

Hurtzaindegiko beka

Alkatetzaren 178/2012 Dekretuaren bidez, **2012ko ekitaldirako hurtzaindegiko beka** deialdia onartzen da, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri berezietan araututakoarekin bat etorriz, jarraian zehazten den eran.

LEHENENGOA.- 2012ko ekitaldirako hurtzaindegiko beka deialdi publikoa onartzea, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri berezietan xedatutakoaren arabera. Oinarriok 242. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2010eko abenduaren 20an.

BIGARRENA.- Diru-laguntzen aurrekontu-muga **HIRU MILA EHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMOKOA** da (3.136,50 €), eta 44 48002 eta aurrekontu-partiden kargura ordainduko da.

Diru-laguntza honen bidez familia edo bizikidetzaren unitateko emango den gehieneko zenbatekoa laguntzaren eskatzaileari sortutako gastuen % 50ekoa izango da, 2 urtetik beherako hurrak dituzten familien kasuan, 300 euroko mugarekin. Familia-unitate horiei diru-laguntzak eman ondoren oraindik ere banatu gabeko kreditu soberakinak badaude, sortutako gastuen % 50eko diru-laguntzak emango zaizkie, 200 eurorainokoak, 2-3 urte bitarteko hurrak dituzten familia-unitateei. Aurrekontu-izendapena aski ez bada eskaera guztiei erantzuteko, diru-laguntzak hainbanatu egingo dira, aurkeztutako eskaera kopuruaren arabera.

Aurkezturiko eskaerekin ezarritako aurrekontu-muga agortzen bada, eskatzailearen errenta hartuko da kontuan diru-laguntza banatzeko; hala, lanbide arteko gutxienezko soldataren halako bi irabazten ez dutenek diru-laguntzaren gehienekoa jasoko dute, eta gainerakoa hein bereko zatitan banatuko da eskatzaileen artean.

HIRUGARRENA.- Xedea.- Udalak beka emango dizkie dagokion ikasturtean hurtzaindegian hasitako 0 eta 2 urte bitarteko hurrak dituzten familiei edo ikastetxe publiko batean hasitako 2 eta 3 urte bitarteko hurrak dituztenei.

Hurtzaindegia, edonola ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendutakoa izan beharko du, eta jardura hori betetzeko beharrezkoak diren betekizun guztiak bete beharko ditu. Zentro baimendutzat hartzen dira Hezkuntza Sailaren 297/2002 eta 215/2004 Dekretuetan ezarritako araudian eta apirilaren 10eko Hezkuntza Sailaren aginduan ezarritako betekizunak eta Hezkuntzaren Kalitateari buruzko 10/2002 Lege Organikoan ezarritakoak betetzen dituztenak, eta, beraz, abenduaren 17ko 215/2004 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako arauzko baimena dutenak.

Ondorio horretarako, ikasturte akademikotzat hartzen da egutegian ezarri dena, Eusko Jaurlaritzak ezartzen duen eskola-egutegia oinarri dela, eta gutxi gorabehera irailtik hurrengo urteko ekainera bitartean doana, bi hilabeteak barne direla.

Halaber, dagokion deialdiaren kargura ordainduko dira ikastetxe publikoetako bi urteko hurren ikasgelek sortzen dituzten gastuak. Diruz lagungarriak izango dira zentro ofizialetan edo Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren bidez ematen diren euskara ikastaroak. Ondorio horietarako, zentro ofizialak izango dira euskaraz ikasi eta irakasteko homologaturik daudenak.



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

LAUGARRENA.- Onuradunak.- Diru-laguntza honen onuraduntzat hartuko dira bizileku iraunkorra Barrikako udalerrian duten familia edo bizikidetzak unitateak, betiere betekizun hauek betetzen badituzte:

1. Diru-laguntza 0 eta 2 urte bitarteko haur batentzat eskatzea eta haur hori ikasturte barruan hartzaindegian ibilitakoa izatea, edo 2 eta 3 bitarteko haur batentzat eskatzea eta haur hori ikastetxe publiko bateko bi urteko haurren ikasgelan ibilitakoa izatea.

2. Hartzaindegira edo bi urteko ikasgelara doan haurra eta familia unitate osoa Barrikako udalerrian erroldaturik egotea, laguntza eskatu den ikasturtea hasi baino 6 hilabete lehenagotik gutxienez, eta ikasturtea amaitu arte egotea udalerrian erroldaturik; salbuespenezko kasuetan ez da beharrezkoa izango aurreko betekizuna betetzea, baina, nolana ere, kasu horiek Informazio Batzorde eskuduneari aztertu eta ebatziko dira.

3. Familia-unitateek egunean eduki beharko dituzte Barrikako Udalari ordaindu beharreko zerga, tasa eta prezio publiko guztiak.

Familia-unitateak hartuko da ezkontza-araubidean edo izatezko bikoteen araubidean daudenak, indarrean dagoen arloko araudian ezarritakoaren arabera. Aurrez aipaturiko betekizun guztiak betetzen direla egiaztatzeko, dagozkion agiriak aurkeztu beharko dira.

BOSGARRENA.- Diru-laguntza emateko araubidea.- Diru-laguntzak arautzeko araubidea norgehiagoka bidezkoa da, eta hainbanaketa sistema ezarri da, puntukako modalitatean, onarturiko eskaeretakoa bat ere diru-laguntzarik gabe gera ez dadin.

Diru-laguntzak banatu ondoren aurrekontu-partidan soberakinik bada eta onartutako eskaera batzuei eskatutakoa baino kopuru txikiagoa egokitu bazaie, berriro egingo da zenbateko soberakinaren puntukako hainbanaketa, erabilgarri dagoen kreditua amaitu arte.

Barrikako Udaleko Informazio Batzordeak aztertuko ditu diru-laguntzen eskaerak.

SEIGARRENA.- Balorazio irizpideak.- Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak esleitzeko, zenbateko diru-laguntza eskatu den ebaluatuko da (ahalik eta eskatzaile gehienengana iristeko asmoz, eskatutako zenbateko txikiena joko da ondoen haztatutakotzat).

ZAZPIGARRENA.- Aurkeztu beharreko agiriak.-

— Sinatzailearen NANaren fotokopia.

— Hala badagokio, zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan eguneratuta egotearen ziurtagiriak, Bizkaiko Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrek egindakoak.

— Matrikula ordaindu izanaren edo, hala badagokio, egindako ordainketen ziurtagiriak.

— Zentro ofizial izatearen ziurtagiria, Eusko Jaurlaritzak 215/2004 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik hartzaindegi zerbitzua emateko Eusko Jaurlaritzaren baimena duela dioena.

— Gizarte Segurantzaren seme-alabak ardurapean izateagatik familia prestazioa eskatu edo jaso dela ziurtatzen duen agiria.

— Onuradunak bere enpresatik edo beste administrazio publiko batetik hartzaindegirako edo bi urtekoen ikasgelarako diru-laguntzarik ez duela lortu egiaztatzen duen agiria.

— Eskatzailearen egoera, diru-laguntzari bide eman diona, hala dela egiaztatzen duten agiriak.

— Bizikidetzak-unitatea osatzen duten kide guztien azken errenta aitorea, edo, hala badagokio, Foru Ogasunak emandako aurkako ziurtagiria.



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

18 urtetik gorako ikasleak eta/edo langabeak badira, eskatzailearen errenta aitorpena aurkeztu beharko da soilik.

Zerrendaturiko agiriez eta datuez gain, Udalak, kasu jakin bakoitza kontuan hartuz, beste edozein agiri osagarri eskatu ahalko dizkio eskatzaileari, aurkeztutako proiektua osoki baloratzeko.

Adierazitako agirietakoren bat Administrazio honek lehendik bere eskuetan badauka, diru-laguntza eskatu duenak ez aurkezteko eskubidea izango du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Kasu horretan, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko da agiri horiek aurkeztu zireneko inguruabarrak berberak direla baieztatzeko, eta berariaz adierazi beharko da zein diren horiek.

ZORTZIGARRENA.- *Eskaera aurkezteko lekua eta epea.*- Eskaerak aurkezteko epea egutegiko hogeita hamar egunekoa izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Nolanahi ere, eskaera ikasturte osoan eta ezartzen den epetik kanpo ere aurkeztu ahalko da, inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Adingabeak gizarte-arriskuan egotea edo arretagabezia larria izatea.
- b) Deialdiaren epea amaitu ondoren muturreko eskasia ekonomikoan gertatzea.

Erakunde eta/edo, hala badagokio, pertsona interesdunek Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte eskaerak, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipaturiko lekuetako edozeinetan. Eskaerak eta agiri osagarriak telematikoki aurkeztu nahi izanez gero, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Araudian eta herritarrek zerbitzu publikoak elektronikoki eskuratzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legean ezarritako eran jardungo da.

BEDERATZIGARRENA.- *Ebazteko eta jakinarazteko epea.*- Diru-laguntzak emateko prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera, eta onartutako eta ukatutako diru-laguntzak jakinaraziko dira, bai eta atzera egin delako, eskubideari uko egin zaiolako edo aintzat hartu ez diren eskaeren gertatzezko ezintasunagatik eman ez direnak ere.

HAMARGARRENA.- *Jakinazteko bideak.*- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik jakinaraziko zaie interesdunei.

HAMAIKAGARRENA.- *Errekurtsoa jartzeko bideak.*- Ebazpen honek Administrazio-bidea amaitzen du; beraz, honen aurka berraztertze aukerako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio alkateari, hilabeteko epean, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtso bat jarri ahalko da Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 10. artikuluetan ezarritako eskumen-banaketaren arabera, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

HAMABIGARRENA.- Guztira HIRU MILA EHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMOKO (3.136,50.-€) gastua baimentzea, 44 48002 aurrekontu partidaren kargura.

HAMAHIRUGARRENA.- Argitara bedi Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean eta webgunean.

HAMALAUGARRENA.- Udal Osoko Bilkurari ebazpen honen berri ematea hurrengo ohiko bilkuran.

Barrikan, 2013ko otsailaren 4an



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

ALKATEA,

José Madariaga Marín



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

Euskara arloko diru-laguntzak

Alkatetzaren 179/2012 Dekretuaren bidez, **2012ko ekitaldirako euskara arloko diru-laguntzen** deialdia onartzen da, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri berezietan araututakoarekin bat etorritz, jarraian zehatzen den eran.

LEHENENGOA.- 2012ko ekitaldirako euskara arloko diru-laguntzen deialdi publikoa onartzea, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri berezietan xedatutakoaren arabera. Oinarriak 242. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2010eko abenduaren 20an.

BIGARRENA.- Diru-laguntzaren aurrekontu-muga **HAMAR MILA EUROKOA** (10.000 €) da, eta 45 4800 aurrekontu partidaren kargura ordainduko da. Diru-laguntza honen bidez pertsona fisiko bakoitzeko emango den gehieneko zenbatekoa eskatzaileari sortutako gastuen % 100ekoa izango da, 600 euroko mugarekin.

HIRUGARRENA.- Xedea.- Barrikako Udalak diru-laguntzak emango dizkie euskara ikasteko ikastaroak egiten dituzten eta bizilekua Barrikako udalerrian duten pertsona fisikoei, udalerriko bizilagunek euskara ikasi eta erabil dezaten sustatzeko helburuarekin.

Diruz lagungarriak izango dira zentro ofizialetan edo Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren bidez ematen diren euskara ikastaroak. Ondorio horietarako, zentro ofizialak izango dira euskaraz ikasi eta irakasteko homologaturik daudenak.

LAUGARRENA.- Onuradunak.- Diru-laguntza honen onuraduntzat hartuko da bizileku iraunkorra Barrikako udalerrian duen edozein pertsona fisiko, betiere betekizun hauek betetzen baditu:

1. Diru-laguntzari dagokion ikasturtearen barruan euskara lantzeko eta ikasteko ikastaroak eginak izatea.

2. Barrikako udalerrian eroldaturik egotea, laguntza eskatu den ikasturtea edo ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik gutxienez, eta ikasturtea amaitu arte egotea udalerrian eroldaturik; salbuespenezko kasuetan ez da beharrezkoa izango aurreko betekizuna betetzea, baina, nolahi ere, kasu horiek Informazio Batzorde eskudunean aztertu eta ebatziko dira.

3. a) Diruz laguntzeko eskatu den ikasturtean edo ikastaroan emandako eskola-ordu guztietatik % 90etara gutxienez joan izana ziurtatzea; edo

b) Zentro ofizial batean maila gainditu izanaren ziurtagiria.

4. Eskatzaileak eta haren familia-unitateak egunean eduki beharko dituzte Barrikako Udalarri ordaindu beharreko zerga, tasa eta prezio publiko guztiak.

Aurrez aipaturiko betekizun guztiak betetzen direla egiaztatzeko, dagozkion agiriak aurkeztu beharko dira.

Diru-laguntza honen onuradun izan ahalko dira, orobat, Barrikako Udaleko langile finko aktiboak.

Diru-laguntza honetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

— **IRALE** edo **IVAPE**ko programa berezien bidez ikastaroak egin dituztenak edo enpresaren edo erakundearen diru-laguntza jaso dutenak.

— **HABE**k emandako diru-laguntzak eskuratzeko eskubidea ematen duten azterketak gainditu dituztenak: 1. maila, 2. maila eta **EGA**.

BOSGARRENA.- Diru-laguntza emateko araubidea.- Norgehiagoka bidez emango da, eta hainbanaketa sistema ezarri da, puntukako modalitatean, onarturiko eskaeretako bat ere diru-laguntzarik gabe gera ez dadin.



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

Diru-laguntzak banatu ondoren aurrekontu-partidan soberakinik bada eta onartutako eskaera batzuei eskatutakoa baino kopuru txikiagoa egokitu bazaie, berriro egingo da zenbateko soberakinaren puntukako hainbanaketa, erabilgarri dagoen kreditua amaitu arte

Barrrikako Udaleko Informazio Batzordeak aztertuko ditu diru-laguntzaren eskaerak.

SEIGARRENA.- Balorazio irizpideak.- Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak esleitzeko, irizpide hauek ebaluatuko dira:

1. Zenbateko diru-laguntza eskatu den (ahalik eta eskatzaile gehienengana iristeko asmoz, eskatutako zenbateko txikiena joko da ondoen haztatutakotzat).

2. Egin beharreko jarduerak edo ikastaroak zer iraupen duen (ahalik eta eskatzaile gehienengana iristeko asmoz, jardueraren iraupen txikiena joko da ondoen haztatutakotzat).

3. Diruz laguntzeko eskatu den ikastaroaren antzintasuna eta/edo maila zein den.

4. Ikastaroa udal euskaltegietan ematea.

Aurrez ezarritako irizpideek haztaperen hau izango dute:

— 1. irizpidea: % 25.

— 2. irizpidea: % 25.

— 3. irizpidea: % 25.

— 4. irizpidea: % 25.

Aurkezturiko eskaerekin ezarritako aurrekontu-muga agortzen bada, eskatzailearen errenta hartuko da kontuan diru-laguntza banatzeko; hala, lanbide arteko gutxieneko soldataren halako bi irabazten ez dutenek diru-laguntzaren gehienekoa jasoko dute, eta gainerakoa hein bereko zatitan banatuko da eskatzaileen artean.

ZAZPIGARRENA.- Aurkeztu beharreko agiriak.-

— Sinatzailearen NANaren fotokopia.

— Hala badagokio, zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekoetan eguneratuta egotearen ziurtagiriak, Bizkaiko Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak egindakoak.

— Matrikula ordaindu izanaren ziurtagiriak. Barnetegi edo antzeko zentron kasuan, bereizi egingo dira egonaldiaeren kostua eta kostu akademikoa, eta soil-soilik matrikularen kostu akademikoa lagundu ahalko da diruz.

— Zentro ofizialaren ziurtagiria, ondoko hauek jasotzen dituen:

a) Eskatzailea emandako eskola guztietatik gutxienez % 90etara joan dela, edo

b) Ikasturtea gainditu duela.

— Onuradunak bere enpresatik euskara ikasteko diru-laguntzarik ez duela jaso egiaztatzen duen agiria.

— HABEk emandako diru-laguntzak eskuratzeko bide ematen duen azterketa ez gainditu izanaren ziurtagiria.

— Eskatzailearen egoera, diru-laguntzari bide eman diona, hala dela egiaztatzen duten agiriak.

— Bizikidetzaren unitatea osatzen duten kide guztien azken errenta aitortpena, edo, hala badagokio, Foru Ogasunak emandako aurkako ziurtagiria.

18 urtetik gorako ikasleak eta/edo langabeak badira, eskatzailearen errenta aitortpena aurkeztu beharko da soilik.

Zerrendaturiko agiriez eta datuez gain, Udalak, kasu jakin bakoitzean kontuan hartuz, beste edozein agiri osagarri eskatu ahalko dizkio eskatzaileari, aurkeztutako proiektua osoki baloratzeko.

Adierazitako agirietakoren bat Administrazio honek lehendik bere eskuetan badauka, diru-laguntza eskatu duenak ez aurkezteko eskubidea izango du, Herri



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Kasu horretan, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko da agiri horiek aurkeztu zireneko inguruabarrak berberak direla baieztatzeko, eta berariaz adierazi beharko da zein agiri diren horiek.

ZORTZIGARRENA.- Eskaera aurkezteko lekua eta epea.- Eskaerak aurkezteko epea egutegiko hogeita hamar egunekoa izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Erakunde eta/edo, hala badagokio, pertsona interesdunek Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte eskaerak, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipaturiko lekuetako edozeinetan. Eskaerak eta agiri osagarriak telematikoki aurkeztu nahi izanez gero, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Araudian eta herritarrek zerbitzu publikoak elektronikoki eskuratzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legean ezarritako eran jardungo da.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazteko eta jakinarazteko epea.- Diru-laguntzak emateko prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera, eta onartutako eta ukatutako diru-laguntzak jakinaraziko dira, bai eta atzera egin delako, eskubideari uko egin zaiolako edo aintzat hartu ez diren eskaeren gertatzeko ezintasunagatik eman ez direnak ere.

HAMARGARRENA.- Jakinarazteko bideak.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik jakinaraziko zaie interesdunei.

HAMAIKAGARRENA.- Errekurtsoa jartzeko bideak.- Ebazpen honek Administrazio-bidea amaitzen du; beraz, honen aurka berraztertzeke aukerako errekurtsua aurkeztu ahalko zaio alkateari, hilabeteko epean, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtso bat jarri ahalko da Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 10. artikuluetan ezarritako eskumen-banaketaren arabera, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

HAMABIGARRENA.- Guztira HAMAR MILA EHUN ZENTIMOKO (10.000€) gastua baimentzea, 45 48000 aurrekontu partidaren kargura.

HAMAHIRUGARRENA.- Argitara bedi Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean eta webgunean.

HAMALAU GARRENA.- Udal Osoko Bilkurari ebazpen honen berri ematea hurrengo ohiko bilkuran.

Barrikan, 2013ko otsailaren 4an
ALKATEA, José Madariaga Marín



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

2012ko ekitaldian kultura eta laguntza jarduerak egiteko bizilagunentzako diru-laguntzak

Alkatetzaren 180/2012 Dekretuaren bidez, **2012ko ekitaldian kultur eta laguntza jarduerak egiteko bizilagunentzako diru-laguntzen** deialdia onartzen da, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri berezietan araututakoarekin bat etorritik, jarraian zehazten den eran.

LEHENENGOA.- 2012ko ekitaldian kultura eta laguntza jarduerak egiteko bizilagunentzako diru-laguntzen deialdi publikoa onartzea, kultura, kirol eta laguntza jardueretarako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri berezietan xedatutakoaren arabera. Oinarriak 242. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2010eko abenduaren 20an.

BIGARRENA.- Kultura jardueretarako diru-laguntzen aurrekontu-muga **BOSTEHUN EUROKOA (500,00 €)** da, eta 45 48001 aurrekontu-partidaren kargura ordainduko da; laguntza jardueretarako aurrekontu-muga, berriz, **MILA ETA BOSTEHUN EUROKOA (1.500,00 €)** da, eta 44 48003 aurrekontu-partidaren kargura ordainduko da. Kultura jardueretarako diru-laguntzaren zenbatekoa, pertsona fisiko bakoitzeko, eskatzailearen gastuen % 25ekoa izango da, **BERROGEITA HAMAR euroko (50,00 €)** mugarekin,. Laguntza jardueretarako diru-laguntzaren zenbatekoa, berriz, % 100ekoa izango da, **MILA ETA BOSTEHUN EUROKO (1.500 €)** mugarekin.

HIRUGARRENA.- Xedea.- Udalak diru-laguntzak emango dizkie Barrikako udalerrian erroldaturiko pertsona fisikoei kultura eta laguntza arloko ikastaroak egiteko, eskatzaile bakoitzeko bi gehienez, eta kultura eta laguntza jardueretan parte hartzeko, batez ere udal elkarteek antolatutakoetan, diru-laguntzak emango diren aurrekontu-ekitaldiaren barruan; izan ere, modu horretan udal kultura eta gizarte jardura sustatuko da.

LAUGARRENA.- Onuradunak.- Diru-laguntza honen onuraduntzat hartuko dira bizileku iraunkorra Barrikako udalerrian duen familia edo bizikidetzaren unitateak, betiere betekizun hauek betetzen badituzte:

1. Diru-laguntza emango den urtean kultura eta/edo laguntza jardueretara bideratutako ikastaroak eginak izatea eta jardura horiek herriko elkarte edo klubek emandakoak izatea, betiere elkarte edo klub horiek jardura hori garatzeko beste udal diru-laguntzarik jaso ez badute.

2. Barrikako udalerrian erroldaturik egotea, laguntza eskatu den ikasturtea edo ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik gutxienez, eta ikasturtea edo ikastaroa amaitu arte egotea udalerrian erroldaturik; salbuespenezko kasuetan ez da beharrezkoa izango aurreko betekizuna betetzea, baina, nolana ere, kasu horiek Informazio Batzorde eskudunean aztertu eta ebatziko dira.

3. Diruz laguntzeko eskatu den ikasturtean edo ikastaroan emandako eskola-ordu guztietatik % 90etara gutxienez joan izana ziurtatzea.

4. Eskatzailearen bizikidetzaren unitateak **HOGEI MILA EUROKO (20.000,00 €)** edo gutxiagoko urteko errenta garbia izatea.

5. Eskatzaileak eta haren familia-unitateak egunean eduki beharko dituzte Barrikako Udalaririk ordaindu beharreko zerga, tasa eta prezio publiko guztiak.

Aurrez aipaturiko betekizun guztiak betetzen direla egiaztatzeko, dagozkion agiriak aurkeztu beharko dira.

BOSGARRENA.- Diru-laguntza emateko araubidea.- Diru-laguntzak arautzeko araubidea norgehiagoka bidezkoa da, eta hainbanaketa sistema ezarri da, puntukako modalitatean, onarturiko eskaeretako bat ere diru-laguntzarik gabe gera ez dadin.



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

Diru-laguntzak banatu ondoren aurrekontu-partidan soberakinik bada eta onartutako eskaera batzuei eskatutakoa baino kopuru txikiagoa egokitu bazaie, berriro egingo da zenbateko soberakinaren puntukako hainbanaketa, erabilgarri dagoen kreditua amaitu arte.

Barrikako Udaleko Informazio Batzordeak aztertuko ditu diru-laguntzaren eskaerak.

SEIGARRENA.- *Balorazio irizpideak.*- Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak esleitzeko, irizpide hauek ebaluatuko dira:

1. Zenbateko diru-laguntza eskatu den.
2. Egin beharreko jarduerak edo ikastaroak zer iraupen duen.

Aurrez ezarritako irizpideek haztapen hau izango dute:

— 1. irizpidea: % 50 (ahalik eta eskatzaile gehienengana iristeko asmoz, eskatutako gutxieneko zenbatekoa joko da ondoen haztatutakotzat).

— 2. irizpidea: % 50 (ahalik eta eskatzaile gehienengana iristeko asmoz, iraupen txikiena joko da ondoen haztatutakotzat).

Aurreko irizpideak aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak lehentasun-ordena honen arabera banatuko dira eskatzaileen artean, jarduera non egin den kontuan hartuta:

1º. Barrikako elkarteek antolatutako jarduerak eta ikastaroak.

— Funtsik geratzen bada:

2º. Barrikako udalerrian egindako jarduerak.

— Funtsik geratzen bada:

3º. Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateko, Musika Kontserbatorioko eta Hizkuntza Eskolako kide diren udalerrietan egindako jarduerak.

— Funtsik geratzen bada:

4º. Gainerako udalerrietan egindako jarduerak.

ZAZPIGARRENA.- *Aurkeztu beharreko agiriak.*-

— Sinatzailearen NANaren fotokopia.

— Hala badagokio, zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekoetan eguneratuta egotearen ziurtagiriak, Bizkaiko Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak egindakoak.

— Matrikula ordaindu izanaren ziurtagiria.

— Laguntzaren ziurtagiria.

— Eskatzailearen egoera, diru-laguntzari bide eman diona, hala dela egiaztatzen duten agiriak.

Adierazitako agirietakoren bat Administrazio honek lehendik bere eskuetan badauka, diru-laguntza eskatu duenak ez aurkezteko eskubidea izango du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Kasu horretan, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko da agiri horiek aurkeztu zireneko inguruabarrak berberak direla baieztatzeko, eta berariaz adierazi beharko da zein agiri diren horiek.

ZORTZIGARRENA.- *Eskaera aurkezteko lekua eta epea.*- Eskaerak aurkezteko epea egutegiko hogeita hamar eguneko izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Erakunde eta/edo, hala badagokio, pertsona interesdunek Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dituzte eskaerak, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipaturiko lekuetako edozeinetan. Eskaerak eta agiri osagarriak telematikoki aurkeztu nahi izanez gero, Administrazio Prozedura Erkideari



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

buruzko Araudian eta herritarrek zerbitzu publikoak elektronikoki eskuratzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legean ezarritako eran jardungo da.

BEDERATZIGARRENA.- *Ebazteko eta jakinarazteko epea.-* Diru-laguntzak emateko prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera, eta onartutako eta ukatutako diru-laguntzak jakinaraziko dira, bai eta atzera egin delako, eskubideari uko egin zaiolako edo aintzat hartu ez diren eskaeren gertatzezko ezintasunagatik eman ez direnak ere.

HAMARGARRENA.- *Jakinarazteko bideak.-* Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri jakinaraziko zaie interesdunei.

HAMAIKAGARRENA.- *Errekurtsoa jartzeko bideak.-* Ebazpen honek Administrazio-bidea amaitzen du; beraz, honen aurka berraztertze aukerako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio alkateari, hilabeteko epean, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtso bat jarri ahalko da Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 10. artikuluetan ezarritako eskumen-banaketaren arabera, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

HAMABIGARRENA.- BOSTEHUN EUROKO (500,00 €) gastua baimentzea, 4548001 aurrekontu partidaren kargura, kultura jardueretarako, eta MILA ETA BOSTEHUN (1.500,00 €) EUROKO gastua baimentzea, 4448003 aurrekontu partidaren kargura, laguntza jardueretarako.

HAMAHIRUGARRENA.- Argitara bedi Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean eta webgunean.

HAMALAU GARRENA.- Udal Osoko Bilkurari ebazpen honen berri ematea hurrengo ohiko bilkuran.

Jose Madariaga Marin alkate jaunak hala agindu eta sinatu du, Barrikan, bi mila eta hamabiko abenduaren hogeita zortzian.

Barrikan, 2013ko otsailaren 4an
ALKATEA,

José Madariaga Marín



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

Subvenciones correspondientes a actividades culturales, deportivas y asistenciales ejercicio 2012

Subvenciones a entidades deportivas y asociaciones que fomenten actividades deportivas y/o culturales para el ejercicio 2012

Mediante Decreto de Alcaldía nº 170/2012, se aprueba la convocatoria de **subvenciones a entidades deportivas y asociaciones que fomenten actividades deportivas y/o culturales para el ejercicio 2012**, conforme lo regulado en las Bases Reguladoras Específicas para la concesión de subvenciones correspondientes a actividades culturales, deportivas y asistenciales, en los siguientes términos.

PRIMERO.- Aprobar la convocatoria pública de las subvenciones a entidades deportivas y asociaciones que fomenten actividades deportivas y/o culturales para el ejercicio 2012, convocatoria que se regula por lo dispuesto en las Bases reguladoras específicas para la concesión de subvenciones correspondientes a actividades culturales, deportivas y asistenciales, publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia número 242, de 20 de diciembre de 2010.

SEGUNDO.- El límite presupuestario de la misma es de QUINCE MIL OCHOCIENTOS CINCUENTA Y SIETE EUROS CON CINCUENTA Y CINCO CÉNTIMOS (15.857,55 €) con cargo a las partidas presupuestarias 45 48100 y 45 48001

TERCERO.- 1. Serán objeto de subvención la realización y el desarrollo en el municipio de actividades culturales y deportivas durante el año 2012 por aquellas entidades que se consideran beneficiarias según el apartado cuarto.

A dichos efectos se considerarán proyectos de interés cultural y deportivo aquellas que por su valor artístico, creativo y de fomento de la actividad cultural y deportiva supongan una importante aportación a la oferta municipal.

2.- Cada entidad o asociación podrá presentar un máximo de 1 proyecto con diferentes actividades. Serán objeto de subvención actividades que se refieran a los siguientes ámbitos:

- Manifestaciones de artes escénicas (exhibición o puesta en escena de espectáculos amateurs (no profesionales).
- Programas de promoción del euskera.
- Música.
- Folklore.
- Proyectos que hagan referencia a ocio y tiempo libre tanto de personas adultas como de menores.
- Proyectos de cooperación que hagan referencia a las áreas establecidas entre diferentes asociaciones del municipio.
- Proyectos que tengan por objeto la promoción de la igualdad de oportunidades y la lucha contra la violencia de género (25 de noviembre / 8 de marzo).
- Viajes y excursiones.
- Actividades a desarrollar en promoción de los mayores (día del mayor).
- Organización de eventos deportivos para menores de edad (federación, ...).

3.- Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollarse durante el ejercicio 2012.

4.- Quedarán excluidos del ámbito de aplicación:

- Aquellas que vayan dirigidas a menos de 6 personas.
- Programas festivos.
- Actividades con un presupuesto inferior a 600€.



BARRIKA

Udala Ayuntamiento

- Actividades y eventos que se realicen fuera del municipio (exceptuando las excursiones).

5.- Serán gastos subvencionables aquellos que siendo correctamente justificados respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada y resulten estrictamente necesarios, no admitiéndose en ningún caso, como gasto subvencionable los gastos de gestión de la estructura de la entidad solicitante (gasto de personal, comunicaciones, etc.).

6.- La finalidad de la presente será la de apoyar y completar la acción de las entidades solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de actividad.

CUARTO.- BENEFICIARIAS

1.- Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas por esta ordenanza:

- Asociaciones de jubilados/as.
- Asociaciones de mujeres.
- Asociaciones culturales.
- Asociaciones o clubes deportivos.
